

# ERRAKETISTAK

## Joko ikusgarria, ibilbide sinesgaitza

1917tik 1980ra erraketariak profesionalki aritu ziren munduko frontoi ezagunenetan. "Chiquita de Anoeta", "Arane", "Emili", Albisu, "Amparito", "Chiquita de Aizarna", "Asteasu"... Hamaika pilotari entzutetsu eman dituen modalitatea loriatua izatetik ahaztua izatera eramana izan zen, egun, bazenik bai baina zenbateraino nor ziren ez jakiteraino.

 ELI PAGOLA

**1**915eko aipamen eta argazkiak egon badaude ere, ofizialki, 1917ko urtarrilaren 4an jokatu zen erraketaz lehen partida profesionalak zirenik. Izan 15 urte edo 57, "Señorita" edo "Chica" bezala aurkeztutako andre horiek, beren garaiko emakume gehienek bizitza oso desberdina izan zuten, nolabait laburtzekotan, adorez, luxuz, dedikazioz eta misoginiaz zipriztindutakoa.

Azken partida profesionala duela 45 urte jokatu zen eta, denborak bere pisa izan baduenek, raketista profesional izandako gero eta gutxiago ditugu geure artean. Zorionez, egun da euren ibilbidea eta bizipenak dokumentatu dituen pilotazale eta feministarik, eta errepor-taje honek euren lanak ditu abiapuntu.

### GARAIARI ERANTZUTEN ZION PILOTA


Erraketa profesionalaren bilakaera garaiko egoera soziopolitikoari erabat lotua dago –edozein kiroletan gertatzen da hala, kirola eta politika nahastearen mantra gora-behera– eta XX. mendeko

González Abrisketak dio eragindako galera dela erraketari profesionalena, erabaki misoginoen emaitza dela gaur egun emakume pilotari profesionalik ez egotea

hamarkada mugituetan gertatuak zuzenean eragin zion modalitateari. Interesgarria da, beraz, 63 urtetik gorako ibilbidea hamarkadaka aztertzea, eta hala egiten du Olatz González Abrisketa antropologoak *Raquetistas. Gloria, represión y olvido de las pelotaris profesionales* (Raketistak. Pilotari profesionalen loria, errepresioa eta ahanztura) liburuan. Bost kapituluatan banatu du historia, atal bana eskainita erraketazko euskal pilotaren sorrerari, 1920 eta 1930ko hamarkadetako zabalpenari, 1940ko gerraosteko erraketari, 1950eko feminitatearen erresistentziari eta 1960 eta

70eko hamarkadetako itzaltzeari. Lan ezin osoagoa da González Abrisketarena, eta argi adierazten du eragindako galera dela erraketari profesionalena, erabaki misoginoen emaitza dela gaur egun emakume pilotari profesionalik ez egotea. Emakume kirolari haien arrakasta ukatzeko adibide ugari aurki daitezke liburuan, esaterako, aipamen egiten dio 1989an argitaratu zen *Juegos y deportes del País Vasco* (Euskal Herriko joko eta kirolak) liburuari, pilota jokoei eskainitako 150 orriko kapituluari aipamen bakarra egiten baitio erraketari. Aipamen bakarra, 1943an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 1.432 pilotari profesionaletatik 734 erraketistak zirenean? Zesta puntan zebiltzan gizonak halako hiru zebiltzanean erraketaz?

Luis Bombínek, Espainiako Pilota Federazioko idazkari teknikoa zela, 1946an *Historia, ciencia y código del juego de la pelota* (Pilotaren historia, zientzia eta joko-kodea) liburuan idatzitakoak –gerora *El gran libro de la pelota* (Pilotaren liburu handia) obra erreferentean argitaratuko zenak– erraketaren gaineko diskurtso aditu eta ofiziala markatuko du: "Kantxetan, frontoiko tenis hori femeninoe samarra da, edo, gutxienez, femeninoa, eta pilotazale politek aurkeztu eta antzeztu digute, 'Pilarín' edo 'Marité' bezalako izengoiti gozoekin eta beste glosolalia barregarri batzuekin, zinematografiari gehiago dagozkionak gizontasunari eta piloteatzeak duen maskulinitasunari baino, esana bedi zintzotasun eutsiezi- nean eta inor zehar-zauritzeko asmorik gabe". Kontuan izan 1946an profesional gehien zituen modalitatea zela errake-



Erraketistak Donostiako Gros pilotalekuan, 1938an. Pilotariak jokatzen ageri diren oso argazki gutxi dago, posatzen ageri dira gehienetan.



ta eta arrakasta handiko hamar-kadak bizi zituela. Ez zen Bombin bakarrik izan, jakina, Moscardo Kirol ministroak fitxa gehiago egitea oztopatu zuen, pilota jokoak emakumeak antzutu egiten zituela argudiatuta, modalitatea ahultzea xede. Pilota-munduko zenbait sektoretan ere ez zuen batere grazia-rik egiten emakumeen arrakastak, eta ez zettorren bat euskal nazionalismoaren proiektu politikoak sustatu nahi zuen iruditeriarekin, publikoak erraketa partidak eskatu arren.

XIX. mende amaieran emakumeak kirolean aritzea, are, desafio mixtoak antolatzea ohikoagoa zen XX. mende amaieran baino, beraz, harrigarria ez da emakumeek jokatutako kirol modalitate bat profesionala eta arrakastatsua izatea, baizik eta hala izateari utz zekion hainbat kargu eta esparrutatik egindako indarra.

## NOLAKO EGURRA, HALAKO ERRAKETA

Hasiera batean gomazko pilotekin jokatzen zen, baina profesionalen mailan berehala aldatu zuten gomazkoa larruzko pilotagatik -1919rako Azkoitiko larruzko pilotak aipatzen dira-. Biziagoa izateaz gain, zuen hots lehor eta solidoa gortzen da kroniketan. 40 mm-ko erradioko 60 gramoko pilotak ziren, abiada izugarria hartzen zutenak. Hain zuen kolpe gogorra non erraketa erresistenteagoak ekoizten hasi ziren 1921 inguruan, lizar oinarriak, luzexegoak, uztai txiki-xegoarekin eta kordada bikoitzekoak. Heldulekua, berriz, intxaurrondoaren egurrarekin egina zen. 1960ko hamarkadan soken ordeztuak nylona erabiltzen hasi ziren, erresistenteagoa zelako.

Janzkerari dagokionez, gona zuri leuna edo tolesduna eraman behar izaten zuten, belaunen azpitik heltzen zitzaie-na eta, moda-irizpideen arabera, laburtzen joan zena. Janzkera mahuka motz edo luzeko blusa zuriarekin eta gerriko gorri edo urdinarekin osatzen zen, ikusleek bikoteak bereizteko. Besoan, sorbalda inguruan, zenbaki bat eramaten zuten baldin eta kiniela jokatzen ari baziren. Hasieran, sandalia batzuk erabiltzen zituzten oinetako gisa, orkatilan bi buelta emanda, eta, gerora, kirol-zapatila zuriak. Jokoa bizia eta pilota bortitza zen eta, hala ere, inon ez da kaskoa-



Jokoa bizia eta pilota bortitza zen eta, hala ere, inon ez da kaskoaren aipamenik, zapi edo bonetaren bat asko jota.

Zenbait familiak lotsaz bizi izan zuten alaba pilotari profesional izatea, eta nahiago izaten zuten Madrilgo aberatsen etxeko zerbitzuan zebilela esatea

ren aipamenik, zapi edo bonetaren bat asko jota. Datu esanguratsua da azken hori, larruzko pilotarekin eta sekulako abiatan jokatzen zutenek, jardun arriskutsua baitzen erraketistena. Bat baino gehiago larri zauritu ziren pilotakada baten ondorioz; Areso, adibidez, buruan pilotakada bat jaso ondoren hil zen.

## KINIELAK ETA PARTIDAK

Deigarria da ez dagoela kirolariak jokoa ageri diren argazki askorik. Gehienak fitxako edo "koadroko" argazkiak (plantillako pilotarien argazkiak) dira, mugimendu gutxiak.

Kiniela edo partida formatuan jokatzen zuten. Frontoira apustuak sartzeak eragin zuen partidak eta horien iraupena ahalik eta gehien orekatu nahia, alegia, partidaren iraupena antzekoa izatea beti eta irabazteko aukera ahalik eta zabalena. Horrela lortu nahi zen apustugileak erakartzea. Gehien jokatzen zen kiniela modua sei pilotariren artekoa zen. Bi pilotari kantzaratzen ziren tantoa jokatzerako, eta irabazten zuenak puntu bat jaso eta kantzaren geratzen zen hurrengo pilotariaren errestora. Bost tantora heltzen lehenak irabazten zuen. Partidak, berriz, 30era izan ohi ziren.

Gloria Agirrek -"Chiquita de Aizarna" ezizenez ezaguna- zera zioen Isabel Vidartek *Pelota a mano*-rako egindako elkarrizketa batean: "Gure jokoa ikusgarria zen, bai. Ikuskizuna egoteko figurak egon behar dira, ondo jokatzen duen jendea, eta bazegoen. Erraketa haiek, oso soka gogorrekoak, oso gogorrak, eta pilota, txikia, lar-

rurrukoa, ondo jotzen bazenuen, abiadura harrigarria hartzen zuen. Jolasa oso alaia eta ikusgarria zen". Ezizen batzuk ere ematen dute jokamoldearen berri. Esaterako, baziren hiru ahizpa "Bolche" izengoitia zutenak, kantzaren ematen zuten gerragatik. Horrez gain, garaian garaiko kroniketan Atano edo Abrego-ren -beste modalitate batzuetako gizon izarrak- pare jartzen dituzte eta, ez hori bakarrik, hain omen ziren onak, ezen erraketaz kanpo ere arrakasta izango luketela ziurtatzen da.

Hainbat pilotariren airezko jokoa goratzen da, eta errebesaren aipua gailentzen bada ere, argazki batzuetan agertzen da erraketa ezkerrean duen pilotaririk; beraz, ezker-eskuin jokatzen zuenik ere bazela pentsa daiteke. Pilotari batzuen dohaina errebotea omen zen eta, frontoien luzerak eta pilotaren ezaugarriak kontuan hartuta, ohiko samarra izango zen pilota erreboteko zutik ateratzea beharra, are, handik jokaldia egiteko gaitasuna izatea. Joko motari dagokionez, berriz, denetik zegoen, piloteoan gailentzen zirenak eta tantoaren bilaitsu-itsuan aritzen zirenak.

Garaiko kroniketan jokaldi zehatzak baino gehiago azpimarratzen dira pilotarien joko-ezaugarria. Nork zein gaitasun izan, horien arabera joko gailendu nahiko zuen eta Mari Arrillagak horrela erantzun zion ARGIAri, jokalarionak zer behar zuen galdetutakoan: "Bista ona, menderatzen jakin. Indarra eta pilota edozein lekutara bota, ez! Taktika behar da hor. Indarra ere bai, arintasuna... Denak behar dira".

2016-2017 urte inguruetan, erraketan profesionalki jokatzeko hasi eta 100 urtera, zenbait omenaldi jaialdi antolatu ziren. Orduan punta-puntan zebiltzan pilotariak kantxaratu ziren, gehienak, palaz ezker paretan zein trinketean ari zirenak. Erraketa originalekin –erraketistek utzitakoak edo propio ekimenerako egindakoak– eta larruzko pilotekin jokatu zituzten, bost bat jaialdi, denera, ez asko. Amaia Irazustabarrena izan zen kiniela zein partida formatuan kantxaratu zen jokalarietako bat eta jokoaren nolakotasunaz galdetuta dio: "Oso-oso azkarra, orain palan larruz jokatzeko duguna baino askoz ere azkarragoa. Nik ez dut behin ere horren azkar jokatu". Abiadura hori hain da txundigarria, ezen, Irazustabarrenarentzat jokamolde gustagarrienetakoa den. Txapatik oso gertuko joko azpimarratuko luke, min egiteko, pilota oso baxu erabili beharra. "Bi paretak-eta gutxiago, zaila zelako ondo kontrolatzea baina moztetik asko, hor egiten duzu min, zeren, gero, altxa egin behar da abiadura horretan".

Larruzko pilotarekin palaz jarduten da Irazustabarrena eta jokoan antzematen du antzekotasunik, batez ere, pilota antzekoak direlako eta pisua dutelako, alegia, "azkar datorrenari gogor eusten diozu edo akabo".

## ERRAKETARAKO FRONTOIAK NONAHI

Lehenengo emakumezko federatuak izan ziren erraketistak Espainian, baita lehen profesionalak ere. Bide profesionala Madrilgo Cedaderos frontoian –aurrez antzoki izandakoan– hasi zuten 1917ko urtarrilaren 4an. Eskura ditugun dokumentuetan, behintzat, hala ageri da. Ez zen hura izan Espainiako hiriburuan erraketisten eszenatoki izan zen frontoi bakarra. Uxue Fer-



Ariane Arrieta-Maider Mendizabal eta Amaia Irazustabarrena-Maritxu Housset pala jokariak, 2015eko uztailean Errenterian, hango frontoiari Agustina Otaola erraketista profesionalaren izena jarri ziotenean.



Maite Gorrotxategi, Nieves Bereziartua eta Charo Blasco.

nandez ikerlariak *Emakume pilotariak*: izaera, bizipen eta sentipenak lanean bildu zuenez, hiruzpalau pilotaleku izan zituzten Madrilan, beste hainbeste Bartzelonan, bana Logroñon, Sabadellen, Castellon, Valentzian, Tenerifen, Salamancan, Valladoliden, Vigon, Santanderren, Sevillan, Habanan, Miamin eta Mexikon. Euskal Herrian erraketisten frontoi profesionalak Bilbon eta Donostian izan ziren, herri gehiagotan ere eskatu izan zen, ordea, modalitateko partiduetan joka zitezten. Frontoiak neurriak ez zeuden estandarizatuak, eta bakoitzak bere berezitasunak izan arren –"alde handia baitzegoen pilotaleku batetik bestera", "Emili", hamaika frontoitik jokatu zuen erraketistaren arabera–, oro har, 30 metro luze, 9 zabal eta 9 altu ziren, 500 lagunetik gora jaso zitzaizkeen espazioak. 1920 eta 1930eko hamarkadetan hainbestekoa izan zen erraketaren gorakada, ezen 40ko hamarkadarako erraketarako egokiak ziren frontoiak beste modalitate batzuetakoak ordezkatzeko ari ziren. Kantxan emakumeak ziren nagusi, aldiz, harmailetan apenas ikusten zen halakorik. "Asteasu"-k kontatua da: "Gizonak joaten ziren pilotalekura, eta, gainera, dirua zeukatenak, han diru asko jokatzeko zuten-eta".



Normalean ez zuten entrenamendurik egiten, egunean behin eta askotan bitan jokatzen baitzuten eta, hori, Agustina Otaolaren esanetan, "nahiko entrenamendu bazen": "Hori bai, pilotalekua aldatzen bagenuen entrenatzen genuen, baita sasoi txar batean sartuta geundenean ere. Baina normalean ez genuen entrenatzen, nahiko entrenamendu bazen-eta egu-nero-egunero jokatzea".

### IZARREN PARE

Erraketa ere enpresei loturiko kirola izan zen eta, norabait profesional joatekotan, talentu bilatzaileraren batek begia bota beharra zegoen, edo prestaketa eskoletan parte hartu. Ildefonso Anabitarte izan zen enpresari horietako bat. Anabitartek, ikuskizunarekin zerikusia zuen familia batetik zetorrenak, Ermuan, Eibarren eta Tolosan neskak bildu zituen pilotari izateko. Ikuskatzaileek trebatu ondoren eta talde "kuriosoa" izan zuenean, Ma-

## JOKALDI SORTA

Nolakoa irudikatu, orduko joko alai eta ikusgarria? Han eta hemen erraketistek egindako adierazpenetatik ondorengo jokaldiak atera daitezke:

- **Marra juxtu pasako zuen txapagaineko sake zikoitza**, falta egiteko arriskuarekin.
- **Bi pareta saketik**. Prezisioa lortzea zaila bazen ere.
- **Txapagainean moztea**
- **Bi pareta**. Ezker pareta frontistetik gertu indarrez joz gero, oso azkar ateratzen zen eta oso aurrean geratzen zen, lehen koadroan. Altxatzeko oso pilota zaila.
- **Bi pareta**. Bigarren koadroan jo ezker pareta, aurreko jokaldia baino goraxeago. Bote oso handia ematen zuen eta, aurkaria ongi kokatua egon ezean, ia ezinezkoa zen saretik pilota hura ateratzea.

drilera bidali zituen. Herri gehiagotan ere ba omen zeuden erraketa-eskolak. Lehen Mundu Gerra amaitu baino lehen, emakume batzuk, haietako askok 15 urte edo gutxiago izanik, etxea utzi zuten, zortea lagun, bizimodua ateratzen saiatzeko. Klase apaleneko gizon batek baino hiruzpalau aldiz soldata handiagoa lor zezaketen eta, hori, garai hartan ere bazen zerbait.

Egia da ez zaizkigula erraketisten ingurukoak garai batean zeukaten sonaren magnitude berean transmititu, baina jakin izan dugun zerbait da izena eta dirua egin zutela askok. "Asteasu"-k hala kontatu zuen *Gaur8* aldizkarian, 2015ean: "Gure etxean dena kendu ziguten eta zerbait egin beharra zegoen. Ez zegoen beste erremediorik. Lehen urtetan ez, baina gerora beti saiatzen nintzen etxera diru pixka bat bidaltzen. Baina guk gastuak ere bagenituen, pentsioak eta... Toki batzuetan pisua hartzen genuen eta lauzpabost erraketista



Mari Arrillaga Garate



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Mari Arrillaga Garate "Arane" elgoibartarra, garaiko argazki batean, eta 2007an ARGIA n egindako elkarriketarako ateratakoan.



JUANAN RUIZ / FOKU

Agustina Otaola, Emilia Gomez "Emili", Maria Rosa Soroa, Gloria Agirre eta Miren Uzkudun "Asteasu", 2015ean Donostian.

bizi ginen elkarrekin. Baina, normalean, pentsioetan bizi ginen". Hala ere, zenbait familiak lotsaz bizi izan zuten etxeko alaba pilotari profesional izatea eta nahiago izaten zuten Madrilgo aberatsen etxeko zerbitzuan zebilela esatea. Agustinak horrela zioen: "Nik hemen ez nuen inoiz hitz egiten nire lanbideaz, ez zitzaidan iruditzen inori interesatzen zitzaionik".

Ia egunero zituzten pilota partidak, batzuetan egunean bi ere bai. Hala kontatzen du "Chiquita de Aizarna"-k: "Hasieran asteko egun guztietan jokatzen nuen. Egun berean bi partida jokatzerira iritsi nintzen, kideren bat lesionatu zitzaidalako. Baina nire jokoa hobetu eta mailaz igo nintzenean, gehiago neure burua baloratzeagatik nekeagatik baino, astean hiruzpalau partida bakarrik jartzeko eskatu nien enpresariei. Eta horrela izan zen". Denen hitzak ez zuen, ordea, pisu bera izaten eta elkarriketatik salatzen izan zuten federazioa ez zela eurretaz kezkatzen eta zegokiena baino baliabide gutxiago jasotzen zutela.

Euskal Herrian ez zuten mundu bat ezagutzeko aukera eman zien frontoiak. Erraketistak kirolari profesionalak ziren eta Madrilgo eta Bartzelonako gizartean ezagunak eta prestigiodunak, garaiko torero eta aktoreen pare ibiltzen zirenak. Kuban eta Mexikon, berriz, are ezagunagoak ziren, izarren

"Gaur egun jendea bagaude eta, larruz jokatzen ikusten gaituztenean txundituta geratzen dira, baina, interes gutxi dago telebistaren partetik, ekonomikoki..."

**Amaia Irazustabarrena**  
Palista

parekoak. Sari banaketa garrantzitsuetan ohikoa zen erraketistak sariak banatzen ikustea.

## PROFESIONAL IZAN DAITEKE BERRIZ?

1980ko uztailaren 18an jokatu zen azken partida, Frontón Madriden. Bila aritutako dokumentuetan hamahiru pilotariko koadroa ageri da, ez dago argi, ordea, azken partida nork jokatu zuen. Pilotarien gogoz kontr hartutako erabakia izan zen eta orduko elkarriketatik jokalariek federazioari egozten zioten erraketa sustatzeko go-

gorik eza. Ziurrenik, "Chiquita de Aizarna" da azken partida jokatu zuenetako bat, berak ez du oroitzen, ordea. Horrela kontatu zion Gonzalezi: "Batzuetan, egoera gustukoa ez denean, ahazten saiatzen zara edo ahaztuarazi egiten duzu".

Geroztik, emakumeek jokatutako frontoiko pilota modalitateak ez da profesionala izan. Erraketisten itzalarekin kontrastea eginez, Irazustabarrenari bere modalitatea profesionala izateko aukeraz galdetu diot. Oso zaila ikusten du emakumezkoen pala profesionala izatea, zuzenean, interesik ez dagoelako. "Jendea bagaude eta, larruz jokatzen ikusten gaituztenean txundituta geratzen dira, baina, interes gutxi dago telebistaren partetik, ekonomikoki...". Beste modalitate batzuetan ere bistakoa da interes falta eta, ondorioz, horretarako baliabiderik ez dela jartzen. 1917-1980 artean erraketaz profesional izan ziren emakume haiek galanta egin zuten eta ongi dago go-goan izatea, aldiz, egungo emakumeen pilota modalitateek orduko ideologia misoginoaren arrastoak dauzkatela, ez baliabide eta ez errekonozimendu. ●



**mitxelena**  
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen mekanizazioan espezialistak



Eziago industrialdea 21, HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus